

EUSKARAREN ETORKIZUNA GAZTEEN ESKU

Laiene Arteaga, Ekine Lasa eta Aroa Galindo

Euskararen erabilera, bai hizkuntzalari bai herritarrek asko kezkatzen dituen gai bat da, batez ere gazteei dagokienean, hauek dira-eta gure hizkuntzaren etorkizuna. Nahiz eta saiakera asko egon diren hauen hizkuntza erabilera maila igotzeko, datuen arabera, ez du ematen egoera hoberantz doanik.

2021ean egindako inkesta soziolinguistiko baten arabera 16 eta 24 urtekoen artean %74,5ak euskaraz daki, baina horietatik euskara erabiltzen dutenak %11 bakarrik dira. Eustat-ek ere antzeko datuak erakusten dizkigu. 2022an lortu zituzten datuek Euskal Herrian 288.382 euskal hiztun daudela esaten dute, 1.568.981 gaztelaniar hiztunekin konparatuta. Aldea izugarria da. Ikastoletan ere, nabarmen da hizkuntza erabileraren jaitsiera hau. Aurten egindako gure inkestaren arabera, Andoaingo Aita Larramendi ikastolan, 15-16 urtekoen artean, %23,5ak euskaraz hitz egiten saiatzen dira, baina gaztelaniarako joera izan ohi dute. %35,3ak ez dute euskaraz hitz egiten etxean.

Gainera, inkesta honek erakutsi digu, askok nahiz eta etxean euskaraz egin lagun artean ez dutela joerarik. Giro lagunkoian beti euskara erabiltzen dutenak %5,9 bakarrik dira, nahiz eta %41,2ak erabili euskara etxean.

Jaitsiera hau gelditzea ez da batere erraza izango, baina honetarako lehen pausua kausa identifikatzea da. Lehen aipatutako ikastolako irakasle beterano batek, Josu Lekuonak (38 urte egingo ditu aurten bertan irakasten), argi du zein den kausa nagusia.

“Gaurko nerabeek jasotzen duten edo kontsumitzen duten informazio gehiena gaztelaniaz da, izan, sare sozialak edo plataformak.” kontatu zigun berarekin gaiari buruz hitz egiteko elkartu ginenean.



Behin kausak identifikatuta, arazoa konpontzeko ekitea oso garrantzitsua da. Horregatik, azken hamarkadetan Euskal Herrian ekimen asko sortu dira euskararen erabilera bultzatzeko. Horren adibide dira Korrika, Euskaraldia, Ikastolaren eguna, Nafarroa Oinez, Martin Ugalde... Korrika adibidez, bi urtetik behin egiten den lasterketa bat da, hamaika egunez gelditu gabe Euskal Herriari buelta ematen diona. Helburutzat euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua lortzea ditu.

Urtero 2.300km inguruko ibilbide desberdina egin ohi da, eta herri bakoitzeko ikastola, asoziazio edota banakoek kilometro bat erosten dute, beraiek korrika egin dezaten kilometro horretan. Horrela lortzen du dirua AEK-k, Korrikaren antolatzaileak. Hala ere, Josu irakasleari ez zaio nahikoa iruditzen, “egiten den guztia beharrezkoa da, baina gustatuko litzaidake gazteengandik sortutako ekimen berriak loratzea, beraiek protagonista bihurtzeko.”



Beraz, zer egin daiteke euskara gazteen artean suspertzeko? Ohitura aldaketa da lehen pausu garrantzitsuena. Azkenean, zer hizkuntza hitz egiten dugun ohitura bat da, beraz, hori aldatuta euskara askoz gehiago hitz egingo litzateke gaztetxoan artean. Honen adibide argi bat, Andoaingo Ikastolan gertatzen den fenomeno bat da. Ikasle askok txikitan, etxean gaztelaniaz hitz egin arren ikastolan euskaraz hitz egiteko ohitura hartzen dute, baina, ikus daiteke, handitzean ohitura hauek galdu eta klase barruan ere gaztelaniaz hitz egitera jotzen dutela.

Horretarako, gure ustez bide eraginkorrena jendea kontzientziatzea da. Gazte hauek euskararen garrantziaz konturatzen badira, esfortzu kontziente bat egingo dute euskaraz hitz egiteko, eta denborarekin natural aterako zaie, ohitura bat bezala. Kontzientziatzearen lehen pausa iada emana dagoela ematen du. Hasieran aipatu dugun inkestako emaitzek esan digute %70,6-ak umeak edukitzerakoan euskaraz egingo diela, nahiz eta orain gehienbat gaztelaniaz hitz egin. Honek esan nahi du badaegoela kontzientziazio minimo bat gaztetxoan artean.

Ondorioz, esan daiteke nahiz eta euskaraen egoera ez den ideala, etorkizunari begira badago esperantza. Pausuz pausuz lana eginez eta ahaleginez ekimenak eginez, egoera hau hobetzea lor daiteke.